

### PRESTAKUNTZA-ATALAREN IDENTIFIKAZIO-DATUAK

PRESTAKUNTZA-ATALA	IKUSKAPENAREN PLANGINTZA	Iraupena	50
		Espezifikoa	
Kodea	UF0317		
Lanbide-arloa	ADMINISTRAZIOA ETA KUDEAKETA		
Lanbide-eremua	Administrazioa eta ikuskapena		
Profesionaltasun-ziurtagiria	Ikuskapenerako kontabilitate-kudeaketa eta kudeaketa administratiboa	Maila	3
Prestakuntza-modulua	Auditoria	Iraupena	120
Modulua osatzen duten gainerako prestakuntza-atalak	Enpresako arloen ikuskapena.	Iraupena	70

#### A atala: **GAITASUN-ERREFERENTEA**

Prestakuntza-atal hau bat dator UC1099\_3 IKUSKARITZA-ZERBITZU BATEN KUDEAKETA ADMINISTRATIBOA EGITEA gaitasun-ataleko LB1 lanbide-burutzapenarekin

#### B atala: **AHALMENEN ETA EDUKIEN ZEHAZTAPENA**

##### Ahalmenak eta ebaluazio-irizpideak

A1: Ikuskapen-prozesua aztertzea, haren faseak, sortzen diren informazio-fluxuak eta erabiltzen diren tresnak identifikatuta.

EI1.1 Ikuskapen-teknikak eta -prozedurak lanaren fasearen arabera azaltzea.

EI1.2 Ezaugarriak behar bezala zehaztuak dituzten jarduera eta enpresa baten ikuskapen-simulazio bat egiteko kasu praktiko batean:

- Proposamen-gutunaren funtzioa deskribatzea.
- Berrikuspenaren edo azterketaren puntu korapilatuenei aurrea hartzeko aukera ematen duen ekonomia- eta finantza-analisirako tresnak identifikatzea.
- Materialtasun kontzeptua zuzen interpretatzea.
- Ikuskapen-plan orokorra prestatzeko adierazgarriak diren enpresa-arloak identifikatzea.
- Azaldutako kasuan, enpresari buruz alde aurretik dagoen informazioa zabaltzen lagundu lezaketen informazio-iturriak identifikatzea.
- Lanean erabilitako dokumentazioa, lan-paperak, formatua, sinboloak, markak eta erreferentziak azaltzea.

A2: Enpresa baten barne-kontrolako prozedurak analizatzea.

EI2.1 Barne-kontrola definitzea, eta haren bidez lortu nahi diren helburuak adieraztea.

EI2.2 Enpresa-mota jakin baten ikuskapen-simulazio praktiko bat abiapuntu hartuta, hauxe egitea:

- Barne-kontrola ebaluatzeko ezarritako kontrolen akatsak detekta ditzaketen galdera sortak betetzea.
- Fluxu-diagrama baten bidez, ezarritako kontrolak ilustratzea.
- Barne-kontrolako akats posibleak detektatzea, eta haien ondorioei buruz argudiatzea.
- Arlo jakin baterako kontrol adierazgarriak ezartzea, eta haien gabeziaren arriskua adieraztea.

A3: Behar diren trebetasun sozial eta pertsonalen berri izatea, lantalde batean integratzeko.

EI3.1 Trebetasun sozial eta pertsonalak definitzea.

EI3.2 Lan-ingurunea definitzen duten ezaugarriak emanda, hauxe eskatzen da:

- Idatzizko eta ahozko harremanak erraz izatea, eta komunikazio eraginkorrak behar bezain maiz.
- Lidergo-trebetasunak erabiliz talde-lana sustatzea, pertsonak inspiratuz eta motibatuz, kideen lana errespetatuz eta sinergia lortzen lagunduz.
- Lana modu metodikoan eta antolatuan egitea.

##### Edukiak

##### 1. Ikuskapenaren sarrera

- Enpresa-informazioa. Urteko kontuak.
- Orokorrean onartzen diren ikuskapen-arauak.
  - Arau orokorrak.
  - Lana burutzeari buruzko arauak.
  - Txostenak prestatzeari buruzko arauak.
  - Finantza Informazioari buruzko Nazioarteko Arauak (FINA).

## 2. Ikuskapenaren plangintza

- Barne-kontrola. Oinarrizko kontzeptuak. Motak.
  - Barne-kontrolaren ebaluazioa.
  - Barne-kontrolaren mugak.
  - Ikuskapenaren plangintza. Faseak.
- Ikuskapen-arriskua.
  - Ikuskapeneko arrisku-motak.
  - Ikuskapeneko arrisku-mailak.
  - Ebidentzia eskuratzeko metodoak.
- Lana dokumentatzea. Kontzeptua eta eragiketak. Motak. Kodetzea.
  - Zaintza eta mantentze-lanak.
  - Ikuskapen-txostena

## 3. Ikuskapenaren problematika

- Ikuskariaren problematika. Talde-lana.

## 4. Komunikazioa enpresan.

- Komunikazioak eta enpresa.
  - Enpresetan sortzen diren komunikazio-motak.
  - Enpresa-komunikazioetan erabiltzen diren baliabideak.
  - Korrespondentzia eta posta-objektuak bidaltzea.
  - Presazko komunikazioak.
- Ahozko komunikazioa.
  - Elementuak eta funtzioak.
  - Hitzezko hizkuntzaren eragina.
  - Hitzezko komunikazioaren ezaugarriak.
  - Ahozko komunikazioak enpresan.
  - Telefonoa enpresa-jardueran.
- Lidergoa. Horretarako sortu edo horretan ikasi. Ezaugarriak. Motibatzeko gaitasuna. Kontrolatzeko gaitasuna.
- Talde-lana. Oinarriak. Garapena.

### C atala: **ESKAKIZUNAK ETA BALDINTZAK**

Baldintza hauetakoren bat bete behar da:

- Batxilergoko titulua izatea.
- 3. mailako profesionaltasun-ziurtagiriren bat edukitzea.
- Lanbide-arlo eta -eremu bereko 2. mailako profesionaltasun-ziurtagiriren bat edukitzea.
- Goi-mailako heziketa-zikloetan sartzeko baldintza akademikoak betetzea edo goi-mailako zikloetara sartzeko dagozkion probak gainditu izana.
- 25 urtetik gorakoentzako eta/edo 45 urtetik gorakoentzako unibertsitatera sartzeko proba gainditu izana.
- Prestakuntzari behar adinako probetxua ateratzeko behar diren prestakuntza- edo lanbide-ezagupenak izatea, ezartzen den araudiaren arabera.

Prestatzaileen, instalazioen eta ekipamenduen arloko eskakizunei dagokienez, profesionaltasun-ziurtagiri honetarako ezarritako eskakizunak hartuko dira kontuan: Ikuskapenerako kontabilitate-kudeaketa eta kudeaketa administratiboa